

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Lehenik eta behin, baliabide fisikoak aipatu behar dira. Lehenengoz gure enpresan oinarritzkoak izango dira aktibo korronteak, ez dugulako berez ezer ez produzitzen. Honen aldetik, gure enpresarako bulego instalazioa izango ditugu coworkingen bidez, alokatuko dugu bulego eta mahai bat gure enpresarako Galdakaon kanpoaldean baitdago, hau enpresaren informazio-erdialdea izango da. Honen barnean jarduera aurrera eramateko beharrezko guztia izango ditugu: ordenagailuak, dokumentuak, kotxeak kontrolatzeko lokalizazio gailu desberdinak eta abar. Bestalde, enpresak 2 auto ofizial izango ditu, eta honen helburu nagusia langileak mugitzea eta jarduera kontrolatzea da. Bestalde enpresako biltegiak aktibo korronteen presentzia egongo dela, baina ez direla oinarritzkoak izango gure enpresarako. Hala nola, biltegirako materiala adibidez.

Bigarrenik, baliabide intelektualak daude: hau da, aktibo ukiezinak. Gure oinarritzko jarduera-ekonomikoa garatzeko, ezinbestekoa da APP digitala. Hau izango da abiapuntua eta honen bidez dena garatuko da. Jarduera bezeroarekin harremanetan jartzeko be bai ere. Programa informatikoaren aldetik, gure tresna nagusienetako bat izango da. Honekin app-aren funtzionamendu egokia bermatu, eta gure bezeroekin harremanetan jartzeko bidea izango da. Tailer enpresa batekin akordioak izango ditugu, honek kotxeekin izandako edozein arazorekin lagunduko dozkue. Honekin daukagun berezitasuna hurrengo da: gu tailer hau iragartuko dugu, eta honen truke, honek gure bezeroekiko deskontu eta laguntza desberdinak izango ditu.

Hirugarrenik, giza baliabideak sartzen dira: Gure enpresako langileak gugeu izango gara jabeak, hau da, dena antolatu eta kudeatuko dugu; egia da ez ditugula informatikan edo marketinean adituak, baina teknologian eta gai digitaletan pertsona trebeak ditugu. Langileak burutuko dute proiektuaren alde intelektualak, eta honek proiektuan gauzatutako edozein arazoaren aurrean arduradunak izango dira, eta bezeroen laguntzaren aldean ere bai.

Azkenik, finantza-baliabideak behar dira: Hasierako inbertsioa egiteko, bazkide bakoitzak diru-ekarpen bat egingo du. Proiektuak aplikazio digital batean oinarritzen denez, ez dugu hasieran diru-kopuru handi bat behar. Gainera, C motako autoak eta auto elektrikoak bultzatuko ditugunez, udaletxeek laguntza ekonomikoak eskainiko digu, kutsadura murrizten lagunduko dugulako. Laburbilduz, honek APParen lehen bertsioa garatzeko eta autoen lehen taldea eskuratzeko aukera ematen dozku, honek daukiezan kostuak modu egokian kontrolatuz.